

# 72 ORDU

---

KEPA  
IRIBAR



erein

72  
ORDU

27  

---

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jauriritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2022ko maiatzean*

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Azaleko irudia:

Getariako Udala eta Beñat Gereka

Maketazioa:

Erein

© Kepa Iribar

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-817-1

L.G.: D 583-2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    


Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

[itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)



KEPA IRIBAR

72  
ORDU

erein

*aïta, ama... zuentzat*



Urdina. Erabat urdina ageri da zerua. Hodeirik gabeko urdina. Eguzkiari ihes egin ezin zaion zeru horietakoa. Eta gogotik ari da egoera baliatzen, gupidarik gabe dena berotzen. Gure begirada, zeru urdinetik itsasora igarotzen da. Itsasoa ere urdina dela esan ohi dugu, baina ez da beti egia izaten. Ozeanoek kolore asko har ditzakete, eta halako zeruaren parean, itsasoa ilun ageri da. Zerua eta itsasoa. Eta bat-batean, branka-haga baten muturra, eta ikuspegia zabalduz, brankako zurezko irudi zaharkitu bat. Inoiz kolorerik izan badu, aspaldi galdua dauka. Itsasontziaren branka bera ondoren, ura erdibituz. Kroskoa beltza, garai hartan itsasontziei ematen zitzaien bikearen ondorioz. Itsasoko belarrak eta moluskuak itsatsita ditu, bere abiadura moteltzen dutelarik. Ontzi-gainean, han eta hemen barreiatuta, hamar bat gizon ageri dira, zarpaıldutako arropak soinean. Nekeak erabat akituta itxuraz. Irudiari jarraituz, hegan eginez, ontzia goitik ikusten da. Bi masta nagusietan belak zabalik, oihalak

han eta hemen josturak ditu, konpondu behar izan dituzten seinale. Supituan, masta nagusiaren goi-aldean dagoen gabia ikusten da, zelatariak adi egon beharreko kokagunea. Baina bertan dagoen gizasemea erdi etzanda dago, esku batekin soka tenkatuta, segurtasun bila, baina indarrik gabe. Haren ikusmira dakusagu jarraian: urdina. Zeru urdina baino ez. Ezustean, marinelaren arreta piztu duen zerbait igaro da ababorretik. Haren erreakzio mugimenduak ez dira azkarrak, baina kaio bat dela ikusteko denbora eman dio, hegazia urrundu aurretik. Belauniko jarrita, esku batekin eguzkiaren oztopoa begietatik kenduta, aurrera begiratu du. Kaio gehiago. Eta aurrena itzal baten moduan, baina adi begirata argiago agertu zaiona: ontzi bat sarea jasotzen. Eta urrunago, lurra. Itsasgizona zutitzen ikusten dugu. Ziur egon nahi du.

—Lurra! —esan du ia berekiko, inork ez entzuteko moduan—. Lurra! —oihu egin du ontziko besteek entzun dezaten.

Ontzi-gainean, pare bat gizon branka aldera mugitu dira urrunean zerbait ikusi nahian.

—Lurra! —egin du oihu berriz ere kapitaina dagoen ingurura. Eskuak, ahoaren bi alboetan jarrita dauzka, berak esandakoa argiago, ozenago, entzun dadin—. Lurra ikusten ari naiz, eta arrantzale ontzi bat ere bai, jauna!

Irudiak, naoa gidatzen duen gizonarengana garamatza. Bi eskuekin gobernatzen du ontzia. Lemaren haga zuzena ondo tenkaturik dauka bere atzapar handiekin. Eskuetak

azala eguzkiak beltzarandua ageri zaio. Kresalak eta haizeak zartatua. Aurpegiko azala ere halaxe dauka, soilik itsasgizonek duten azal mota hori: zimurrez beteta, itsas milia eta korronte bakoitzak beren orbaina utzi izan baliote bezala. Egindako bidaiaren mapa darama berekin azalean marraztuta. Kapitaina gizon lerdena da, sorbaldetarainoko ile luzearekin ageri da, bizarra ere oparoa. Ontziko beste guztiek bezalaxe, nekearen eta gosearen arrastoak berekin ditu, baina gihartsu dago. Eta zelatariak esan duena entzun duenetik, irribarrea marrazten du bere ahoak. Ahopean, inork ez entzuteko moduan, esan du:

—Iritsi gara, banekien lortuko genuela. Jainkoari eskerak, iritsi gara!

Irudiak berriz hegan egiten du, popa aldetik gora, ontzia atzealdea erakutsiz. Garbi irakur daiteke bertan *Victoria* izena. Ondoren itsasontziaren ubera, eta gero, ura baino ez. Azkenik, dena beltza. Ilun geratu da erabat pantaila.

Zine aretoko argiak piztu direnean, bertan bildutako lagun apurrak ikusi ditu berriz ere. Batzuk, ikusi beharrekoa ikusita, amaitu orduko ia kaleko atean daude. Laugarren ilarako gizasemea nagiak ateratzen ari da disimulurik gabe. Beste bat, film ondorengo letra guztiei adi begira, azken musika entzuten duen bitartean; beti egon ohi da horrelako bakarren bat. Bera lasai hasi da eskailerak jaisten. Telefonoa



hartu eta dei bat egin du. Hirugarren dei tonuan iritsi zaio erantzuna.

—Aitor!, ez duzu sinetsiko baina telefonoa eskuan neukan zuri deitzeko.

—Norbait behar al duzu ba zure herriko jaietan parranda egiteko? Lagun guztiek abandonatu egin al zaituzte? —txantxetan.

—Zaude isilik, leloa! Lan kontuengatik deitu behar nizan, baina tira, akaso aurkituko dut ikertzaile jatorrago bat Interneten begiratuta.

—Kosta behar zaizu. Zer nahi duzu?

—Lantxo bat dauka alkateak zuretzat. Bihar elkartu gaitzke udaletxean, 16:30etan?

—Bai, han izango naiz. Zer moduz doaz jaiak?

—Puf!, eromena izaten ari da. Asteartekoa prestatzeak ia eguneko ordu guztiak jaten dizkigu. Pasako da hau ere. Zertarako deitu nauzu?

—Zinetik ateratzen ari naiz. Ea asmatzen duzun zer ikusi dudan!

—Auskalo, ez daukat burua oso argi egun hauetan, egia esan.

—*Primus* ikusi dut.

—Hara! Oraindik ez dut betarik hartu horretarako. Herriko askok ikusi dute jada.

—Bai, pentsatzen dut. Beno, bihar hitz egingo dugu.

—Bai, hobeto... Utzi egin behar zaitut, lanpetuta gaude orain. Bihar arte.

Zine aretotik atera denean udako eguzki beroak ia itsu utzi du. Zerura begiratu eta dena urdin ageri da.

«Filmeko ontzikoek ez zuten garagardo hotz bat edateko aukerarik, nik bai! –pentsatu du–. Bihar Getariara beraz, ez da plan txarra».

Eta zine aretoaren alboko terraza batean eseri da.

A-8 autobidea utzi eta Zarautz igarotzea, edonoren pazientzia agortzeko moduko ekintza izan daiteke abuztuan. Eta iraileko lehen egunak, asteburua izanik are gehiago, abuztuaren luzapen bihurtzen dira. Jakina da uda ez dela Zarautzen amaitzen Euskal Jaiak igaro arte. Larunbat hau ez da salbuespena. Semaforoak, autoak, atzerritarrak surf oholekin... Ez dauka berak ordea presarik, eta gustura doa leihoa beheraino zabalik. Zarauzko portu txikiaren albotik igaro denean, jendetza ikusi du bertan jauziak eginez. Kukainatik batzuk, tranpolinetik besteak... Uda da, gozamen garaia jende gehienarentzat; haur, nerabe eta gazteentzat bereziki. Opor garaia haientzat. Azken txanpa. Berak ere oroitzapen politak ditu umetako udez, handik oso urrun. Egun, 40 urterekin, umetako kontuak aspaldiko sentitzen ditu. Kostaldeko errepide horretatik gidatzea atsegin du, itsasoaren gainean doala iruditzen zaio. Eta halako batean, Getaria agertzen zaionean ikusmiran, beti sorpresaz harrapatzen du. Urte batzuk lehenago, lan kontuak tarteko orduan ere, lehen aldiz bertaratu zenean, postaleko irudi itxura hartu zion.

Gerora baieztatu ahal izan zuen Zarauztik hartutako Geta-riako irudia askotan erabiltzen dela horretarako. Lehenaldi hartatik aldatu dena bere aldartea da. Ihesi zebilela igaro zuen lehen aldiz kostako errepide hura. Barne ihesa zen gehienbat, kanpoaldetik ere mugiarazi ziona. Gertaera lazgarri batetik ihesi. Atzerrian jaioa zen, Herbehereetan. Ama zena, ezustean geratu zen haurdun gaztetan. Haren etxean ez zuten ondo hartu, eta ospa egin zuen. Euskal Herria utzi eta Europan barrena abiatu zen. Herbehereetan, Amsterdamen, amaitu zuen. Hantxe osatu zuten bizitza. Bera, ikasketa garaia amaituta, polizia bilakatu zen. Ondoren etorri zen amaren heriotza. Gogorra izan zen bakarrik geratzea. Eta urte gutxiren buruan, bere bizitzako bigarren kolpe lazgarria: lankidea, lagun mina ere bazena, kasu bat ikertzen ari zirela hil zuten. Hiru urte badira hori gertatu zenetik. Gertaera ikaragarria izan zen beretzat. Amak aurrez egindako bidearen kontrakoa egin zuen orduan, galera hura saihestu nahian. Ihesa bere bizitzan oso presente zegoen. Osabarengana joan zen Donostiara, amaren anaia. Hark jaso zuen, iloba babeste aldera. Eta berekin batera jarri zuen lanean ikerlari pribatu gisa. Osabak erretiroa hartu zuenean, bakarrik jarraitu zion haren enpresaren jardunari. Denboraren poderioz, gertaera lazgarri harekin bizitzen ikasi du. Baina errepide hura hartzen duen guztietan oroitzen da lehenaldi hartaz. Zorionez, oroitzapen hark geroz eta samin arinagoa sortzen dio. Lagunaren heriotzaren dolua barneratzen ari den seinale.

Amaren sorterriarekin lotura afektiboa izan zezan, osabak, Herbehereetara bisitan joaten zitzaion aldiro, euskal musikaren aleren bat eraman ohi zion. Haietako batekin ere oroitzen da errepide zati hura zeharkatzen duen bakoitzean: «...*kostako bidean... zorion butsa...*», hala kantatzen zuen Zaramak Amsterdameko nerabe gela hartan.

Ikusten den aurrenekoa San Anton mendia da. Arratoi itxurakoa batzuentzat, sagua beste batzuen aburuz, balearen silueta ere ikusten dute askok. Herritarrentzat, *San Antoko mendiya* baino ez. Hari itsatsita herria, elizako kanpandorra agintari, eta Elkanoren oroimenez egindako monumentua azkenik. Ez da harritzekoa lehen aldiz ikusten duenak bertan geldialdixoa egin eta argazkiren bat ateratzea. Iritsi den unean ere hala ari dira atzerritar itxurako batzuk.

«Halako zenbat argazki ote daude monumentu honetan ateratakoak?», pentsatu du berekiko gorrian dagoen semaforoan geratuta dagoela.

Ikusi dituen guztien artean, Aitorrek bat du bereziki gogoko: 1967ko Zarauzko maratoikoa. Bertan, Abebe Bikila atleta handia ageri da Getaria zeharkatzen korrika. Birritan txapeldun olinpikoa izandakoa maratoian, Erroman eta Tokion. Olinpiar jokoetan urrezko domina irabazitako lehen afrikarra monumentu haren aurretik igaro zen korrika, alajaina. Ez zuen lasterketa hura bukatzerik izan, eroriko batek eragotzi zion. Aitorrek ez dakiena da lotu dezakeela korrikalari etiopiarra bere oraingo eginbeharrarekin, bitxikeria

baino ez izan arren: lau urtez behin Getarian egiten den «Lehorreratzea» abuztuaren 7an izan ohi da, Abebe Bikila jaio zen egun berean. Aurtengoa salbuespena da, ordea, irailaren 6an egingo baita, Elkanok munduari bira eman ziola 500 urte betetzen diren egunean, hain zuzen. Hiru egun barru.

Badiara begiratu du detektibeak. Beti bezain eder agertu zaio: Malkorbe hondartza ikusi du lehenik. Itsasora joan zaizkio begiak ondoren. Bare-bare ageri da. Bainua hartzen ikusi du jendea. SUP taula handietan igota, arraunari lasai eragiten beste batzuk. San Anton mendiak eskaintzen duen babesean dago portua. Bertan daude txikotak lotuta arrantzak-ontziak. Une hartan ari da belaontzi eder bat kaian sartzten. Hura gidatzen ari denak irratia hartu du eskuan:

—*Bonjour*, hemen *Brise* ontzia. Matxura daukagu eta porturatzeko tokia behar dugu, txanda.

—Hemen Getariako Kirol Portua. Kanpoko pantalanean daukazu tokia.

Belaontzia pasatzen ikusi dute moila gainetik kanaberraz arrantzan ari direnek.

Betiko itxura dauka Getariak.

Udan kostaldeko herrietan autoa uztea odisea bihurtuta dago, eta egoera hori areagotu egiten da festak baldin badira. Bosgarren mendeurrena tarteko, «Bostekoa Munduari» lelopean, bost eguneko egitaraua antolatu dute Getarian. Lortu du halako batean autoa uztea, eta udaletxerako bidean jarri da. Herriko frontoian puzgarriak daude,

eguzki galdatan, baina gustura dabilta haurrak. Musika burrunbatsua dute bidelagun euren jolasetan. Umeek zarata hura benetan behar ote duten pentsatu du Aitorrek. Zain dauka Idoia plazan, udaletxe aurrean. Eskuaz agurtu du.

Lehen aldiz, Aitor Getariara eraman zuen kasuari esker ezagutu zuten elkar hiru urte lehenago. Ia berehala sortu zen adiskidetasuna bien artean, nahiz eta egoera lazgarria bizi behar izan zuen neskak kasu hari lotuta: aitaren heriotza. Agian horrexegatik sortu zen bien arteko lotura, biek hurbileko pertsona baten galera bizi izan zuten garaian ezagutu zirelako. Adinkide izateak ere lagundu zuen elkar ondo hartzen. Erizaina da Idoia ogibidez. Udaletxean zinegotzia ere bada; ondorioz, lanetik oporrak hartuta dago egun hauetan, herriko jaien inguruko lan guztiek –Lehorreatzearenak batik batik– denbora asko eskatzen dutelako. Aitorrek gustura egiten du Getariarainoko bidea, bere ikertzaile pribatu laneko egunerokotasunetik ihes egiteko modua aurkitzen du arrantzale herri txiki horretan. Berezia egiten zaio herritarren arteko harreman hurbilekoa, Amsterdamen eta Donostian ezagutu ez duen modukoa. Idoiak, berriz, pozik hartzen du herriko betiko lagun, ezagun zirkulutik kanpoko norbait, so-lasaldirako gaiak aldatzen dizkion adiskidearen bisita.

—Zer iruditu filma? —galdetu dio neskak.

—Denbora pasa polita. Badakizu, amerikarrek abentura film entretenigarriak egiten dituzte: itsasontzi ederrak, paisaia zoragarriak, ekintza noiznahi... Ez dakit gertaera historikoak zuzenak diren, baina gustura ikusi nuen.

—Denetarik entzun dut herritarren artean.

*Primus* filma ez da estreinatu zaharra. Magallaes kapitain portugaldarrak hasi, eta Juan Sebastian Elkanok amaitu zuen bidaia kontatzen du, azkenerako mundu bira bihurtu zena. Lehenengo izate horri egiten dio erreferentzia izenburuak, Espainiako errege Carlos I.ak itsasgizon getariarrari emandako armarrarian idatzarazi zuen esaldiari: *Primus Circumdedisti Me*, «bira eman didan lehena». Gaztelu bat erdialdean, behean hainbat espezia, eta goialdean, lur globoaren inguruan, latinezko esaldia. Armarrari hori eta urrezko 500 dukateko errenta agindu zizkion urtean ontziburu getariarrari. Aitorrek irakurria zuenez, ez zen monarka arrunta hura, enperadorea zen: Espainiako errege izateaz gain, Germaniako Erromatar Inperio Santuaren burua zen, Carlos V.a izenez. Joana Eroaren eta Felipe Ederraren semea. Carlos errege hark agindu zuen bidaia hura, espezien uhartetara joateko bide berri bat aurkitu nahian, portugaldarren urak ukitu beharrik gabe. Bostehun urte beteko dira irailaren 6an itsas abentura hartako ontzi bakarra portura iritsi zenetik. Eta Hollywoodek hori baliatu du filma egiteko. Elkanoren papera jokatzeko duena Robert Coffey da, aktore ezaguna. Esne mamitan dabil azken urteetan, aurrekontu potoloko filmak eginez, hainbat *blockbuster*etako protagonista izaten ari da azkenaldian. Eta filmaren promozio lanetan, asteartean Getarian egongo da Lehorreratzea ikusiz. Udan, Europan zehar dabil, eta ekoiztetxeari ideia ederra iruditu zitzaion milaka lagun Elkano gogoratuz elkartuko

diren tokian aktore nagusia agertzea. Noski, ehunka telebista kamera eta argazkilari egongo direla kontuan izanik. Berak ere gustura hartu du, itsasgizonaren jaioterria ezagutzeko aukerak erakarri du.

—Hemen dago zuen gizona —esan du Aitorrek herriko plazako Elkanoren oroimenezko estatuari so.

—Bai, nork esan behar zion bidaia amaitu eta bostehun urtera halako lanak eman behar zituenik! —erantzun dio Idoiak irribarretsu.

—Zer zabiltzate ordu honetan bulegoan?

—Lana gainezka daukagu. Gainera, Maiterentzat pakete bat omen dakar garraiolari enpresa bateko mezulari bateg, eta arratsaldeko bostetan eskura eman behar omen dio.

—Jesus, hori da hori zehaztasuna.

Udaletxean sartu eta eskaileretan gora jo dute alkatearen bulegora. Lehen agintaldia du Maite Albisuk alkate. Eta bere zinegotzien artean dago Idoia. Ezagutzen du Aitor lehendik ere. Elkar agurtu ostean, mahai inguruan eseri dira hirurak. Maitek hitz egin du.

—Badakizu, asteartean 500 urte, Lehorreratzea eta hori dena... Gauza berezi ugari izango ditugu eta zure laguntza beharko genuke.

—Entzuteko prest naukazu.

Idoiak hitz egin du ondoren.

—Elkano bizi zen garaian, ez zegoen idatzizko dokumentuak gordetzeko ohitura oraindik oso zabaldua. Horregatik, ez daukagu haren inguruko informazio askorik. Egin



zuten bidaiaz, esaterako, orain urte gutxi arte, apenas ze-  
goen ezer, ontzian eraman zuten eskribau italiar baten tes-  
tigantza baino ez: Pigafetta izena, eta honek ez du Elkanok ia  
aipatu ere egiten. Horrez gain, Francisco Albok, *Trinidad*  
ontziko kontramaisuak, bidaiaren itsasbidea idatzi zuen, xe-  
hetasun handiz gainera. 2016an, Aiako Laurgain Dorrean,  
Elkanok beraren dokumentu batzuk aurkitu ziren, tartean  
erregeari idatzitako gutun bat, baino askoz gehiago ez dago.  
Orain dela lau urte, ordea, Sevillako jauregi batean, seku-  
lako aurkikuntza egin zuten: Elkanok berak idatzitako bi-  
daiaren kronika osoa, eguneroko bat. Itxuraz, familia ho-  
rretako arbaso nobleren batek, bidaiaria abiatu aurretik eskatu,  
eta Elkanok egin. Gero, dokumentua desagertu egin zen.  
Harik eta familia horren beraren etxeetako batean, aspal-  
diko paperen artean agertu zen arte. Lehen, orain baino diru  
gehiago izango zuen familia horrek, eta aurkitu orduko, Es-  
painiako eta Euskadiko erakunde publikoek bereganatzeko  
ahalegina egin arren, enkante pribatu batean saldu zuen.

Maitek hartu du hitza berriz ere.

—Londresko enkante etxe batean atera zuten. Eta abe-  
rats eskoziar batek erosi, bi milioi euroren truke.

Harridura aurpegia jarri du Aitorrek. Idoiak jarraitu du:

—Kontua da, ez dakigu nola, baina Jaurlaritzak lortu  
duela McStay familiako eskoziar honek dokumentua uztea,  
astearteko Lehorreratzean erakuts dezagun. Ekitaldia buka-  
tzean, gonbidatu guztiek udaletxeko areto nagusian luncha  
izango dute, eta hor ikusi ahal izango da dokumentua. Hori

bukatuta, pare bat orduz, herritarrek ere izango dute aukera. Bi hitzetan, horrek iraungo duen tartean, zu dokumentuaren alboan egotea nahi genuke, disimuluarekin, baina ez dabila ezer gertatu.

—Aitor, Ertzaintzak esan digu bi agente jarriko dituela aretoaren sarreran, baina nik dokumentuaren alboan nahi dut norbait. Ez nuke nahi gure herria barregarri geratzea paper horiek hondatu, puskatu, edo auskalo zer gertatuta. Eta jakina... Ez daukagu sekulako aurrekonturik zuretzat!

Barre egin du Aitorrek.

—Lasai horregatik. Iraila da eta erdi oporretan nago. Idoiak bere etxean aterpea ematen badit pare bat egunez, opor irteera gisa hartuko dut. Nik ere gustura ikusiko dut hurbiletik Elkanoren idatzi hori.

—Oso ondo —esan du Maitek—. Buru hauste bat gutxiago.

Atea jo dute. Idoiak mugikorreko erlojuari begiratu eta bostetarako bi minutu falta direla ikusi du.

—Zure garraiolaria izango da.

Atea zabaldu eta laranja uniformeko gazte bat sartu da gutun-azal bat eskuetan duela. Hura ere mugikorreko erlojuari begira.

—Ni naiz Maite, eman paketea.

—Barkatu, baino aginduak oso zehatzak dira: 5etan puntuan.

Hirurak harrituta geratu dira. Kanpaien lehen hotsarekin batera aldatu dira guztien mugikorretan erlojuaren

zenbakiak. Mutilak, gutun-azala luzatu, agiria sinarazi, eta joan egin da. Bulegotik irten orduko telefono dei bat egin du:

—Arratsaldeon, gutun-azala entregatuta... Bai jauna, alkateari eskura eman diot... 5etan puntu-puntu.

Maitek, jasotakoa zabaldu eta irakurri duenean zurbil geratu da, hitzik gabe.

Idoiak eta Aitorrek elkarri begiratu diote.

—Zer duzu? —galdetu dio zinegotziak.

Alkateak gutun-azaletik ateratako folioa beste biei erakutsi die.

In 72 hours  
I'll kill  
Robert Coffey

—«72 ordu barru Robert Coffey hilko dut» —itzuli du Idoiak.

—Orain arteko buru hauste guztiak txiki geratu zaizkigu.